

ANAITASUNA

URTARRILLA (1) 1966 — XIII URTEA — N.º 131 — Dep. Legal S. S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantzazuko Irarkolan.

Prensako lege baten eske

Suskritoreari dei bat

Urte Barrian sartu gara. ANAITASUNA-k urte onetan zeozar egiteko asmoa dauko. Indartsuago, apaiñago egiteko asmoa seguru. Beste ekiñaldi bat, Bizkai errietako euskerea sendoagoa egiteko.

Ortarako gure lagun ta suskri-tore danen laguntasuna bear dogu. ANAITASUNA oraindik mutil koxkor bat baiño ez dozu. Baiña laster jantziko dauz praka luzeak, gizon egiteko naian.

Zure laguntasuna eskatuten jatzu. Eta laguntasunik onenetariko-a suskri-toreak ugaritutea da ziur. Ugaritu bada, suskri-toreak.

Eskerrik asko!

Ministroen Billerak Prensako Lege-proiektua Kortese-tara eroan dabe, oneek aztertu eta erabakiak artu dalezan. 1938-tik onuntz izan da orren gosea.

ECCLESIA berbetan.

“Orain dauke aldizkariak eta danon onerako diran gauza oneetariko eskua dauken personak, beren iritzi agiriaz-edo berak lana egiñaz, legegilleeri lagunduteko ordua. Emondako legea bete bear dauanari jagoko egiten ari diran legea aztertu eta dizkuziñoan jartzeko esku-bidea, eta batzuetan, ori bere lana izango da benetan. Ortarako doaz urrengo lineak” (Ecclesia-tik, urriak 30, 1965).

Linea oneitan auxe esaten da gitxi-gora-bera:

1.—Etorri datorken lege orren bidez aldizkari-enpresak egin daikee. Eta oneek beren zuzendariak askatasun osoz aukeratu daikeez. Ez jagoke Gobernuaren zensurarik, eta alan ezker, juzgadueta-ra joan daiteke.

2.—Baiña legeak beren akatsak badi-tula emoten dau. Zabaldu baiño ordubete lenago aldizkariaren ale batzuk Goiko Ofizinetan itxi bear dira (12-gn. art.). Erbesteko jakin-bideen lanak

ajentzi bakarrik emoten ei jakoz (49'gn. ort.) Aulan jakin-bide orrek Gobernuaren menpean gelditu bear dabe.

3.—Gaiñera, ez ei dago askatasunik geure gizarteak daukana legea eta Gobernuaren lana bear dan moduan juzgetako (2'gn. art.) Onek ez dau emoten Aita Santuaren iritziarekin bat dagonik. Burruka gogoak biztutea Prensaren lana ez da. Baiña bere iritziarekin aginduten, ondo aginduten noski, asko lagundu leikioe Goikoeri.

4.—Aldizkari bat atara gura daben instituziño guztiak, ortarako beste ikazera bat —empresa informativa deritxoana— osatu bear dabe (16'gn. art.). Legekeri geiago litzake, ta dana lana zaillagotuteko besterik ez.

5.—“Teknika, zientzi edo profesio-errebisteeri” ez jake lege au bete erazten (21'gn. art.). Baiña edukaziño, erlijio edo sozial-gaiak ez ei dagoz or sartuta.

6.—Askenik, Eleizaren gai berezleri ez ei jake jaromonik emon: Morali jagokonez, lokarri gitxi jarri ei dira.

Ori da ECCLESIA-ak diñona, labur-labur eginda.

(Zazpigarren orrira).



Konziilioak berrito sortu dauz apaiz-biargiñak. Ez uste apaiz-biargiñak Frantzia-n edo ortik bakarrik dagozanik. Gure artean be badaukaguz.

Oraindiño askok ez-takie zertarako sortuak izan diran. Batzuk abade pobre edo suerte txarra euki dabenekoak edo orrelako bat dirala uste dabe. Beste ezer be ez. Zertarako —diñoe— sartuten dira osterantzean biar ain zikiñetan?

Ikusi erdiko orrietan.

BERMIO-tik

Manuas-ko auzonean —Irazabaleta baserrian— bizi da euskal-erriko amomatorik zarrenetariko bat, zarrena ezpada. Bere izen abizenak: Eskolastika Mendizabal Imaz. Eskolastika izen onek ba difosku gure amonatxo zarra benetan be urteduna izan bear dauala. Gaurko neskatoak deskuidoan be ez dabe olako izenik eukiten da. Nik beintzat ez dot ezagutuen izen aro daukon infor. Eta ain zuzen eun da iru urte beteak daukoz. Liburu santuak badiño Matusalen luzaro bizi zala edo olako bat. Baiña ez pentseu Irazabaleta-ko amomatorio zartxoak baiño osasun askoz gogorragorik eukiko ebanik bizitzan zear. Bai zera...! Oraindik be ikustekoa da izan gure amomaren sendotasuna. Sollube magaleko aize garbiak badirudi aparteko kemen bat daukeela.

Lengo batean Bizkai-ko "Caja de Ahorros-ak" amonatxo oneri omenaldi bat egin eutson. Eta ain zuzen aparteko aparteko omenaldi bat. Omenaldi ortan alboko errietako beste amazpi andra larogeta zortzitik eun da iru urteraiñoakoak eta beste amozortzi aittitte zar larogeta irutik larogeta amabi urterarte-koak. Jai ortan bizkor agiri zan gure amona Eskolastikaren alaba bat be, larogei urtekoa.

Onetariko jaialdiak sarritan ez dirala ta edo, aparteko garzi bat euki eban danontzako. Jatordu a bai izan zala pelikuletan be ikusten ez dalakoa. Baiña gauza bat falta izan zala esango neuke nik: dantza apur baten falta. Asko ezta la Santurze-ko ta Bermio-ko sardiñeraren dantzak Sopena-n ikusiteko zoria euki neban, marmitako apustua egiten zan bitartean. Ikusi barik ez da izan ain erreza sardiñerak dantzarako dauken grazia adieraztea. A bai zala dantza egitea. Eta Bermio-ko amona ta aittitte zarrak badakie seguru zer dan dantza egitea. Baiña, zoritxarrez, orduan ez eben euki dantza egiterik, azurrak ia apur bat gogoritu eukeezan da. Osterantzean bai izango zala gozoa orretariko dantza bat ikustea. Ikusteagaitik ni neuk eztakit zer emongo neuken be. Bai... egia benetan be!!

Cuk be —berandutxu izan arren— jaialdi artan parte artu gura geunke. Beraz, Irazabaleta-ko amomatorio zartxoari gure asmo beteenak balduten deutzaguz.

DEUSTO-tik

Deusto-ko Unibersidadeak Bizkaiko Diputazioaren baimena zuzendu dau ikastola ortan euskeraz irakasteko. Zorionez erri barruan irabazten doa euskerak bearrezko indarra. Izan be lotsagarria zan euskerazko katedrak Salamanka-n eta Zaragoza-n eukita, ostera, euskal-errian inundik be ez eukitea.

Baiña euskereantzako unibersidadeetako ikastolak ez dira bear bada inportantzikoenak. Euskerea gorde gura bada, erriko eskoletan irakatsi bear da euskerea. Osterantzean antxiñako izkuntz zarrari pasa jakena —esate baterako, griego ta latiniari— gertatuko jako euskereari be: instituto eta unibersidadeetan erakusten dala ondo baiño obeto erakutsi be, baiña erriak ez dauala jakingo izkuntz ortren gain arien be.

ONDARRU-tik

Erri onetakoa aspalditik eusko eskola bat egiteko amesan egon gara. Atzoko amesa laster errealdade bat izango dalakoan gagoz. Beintzat orretarako alegiñ guztiak ipinten gabiltz. Ain zuen oraintxe zabaldu doguz erriko etxe guztietara orri batzuk laguntza eskatuaz. Izan be eskola bat sortutea ez da edo zelako arloa eta inoz be batek bakarrik egin daiken biarra. Orregaitik zabaldu doguz erriko etxe guztietara papel orreek. Eztago zertan esan bearrik eskola batek erriko laguntasuna bear dauala, zergaitik, umeak eskola ortara ez badira balduten edo dirua eta propagandea ez bada egiten, bistan dago ezer be ezta daitekela egin Askok pentsaten dabe euskereak ez dauala balio ezertarako, eta, gailnera, eusko eskoletara doazen mutil-neskak ia-ia derri gorrez atzeratuta gelditu bear dabela. Tontekeri onek benetan be tontekeriak dirala denporeak erakutsiko deusku. Eske eztago egon inori derri gorrezko lege bat jarri bearrik. Gure eusko eskolera borondate oneko euskaldunak gura doguz. Beste-rik ez da bear, borondate ona baiño.

GERNIKE-tik

DANTZA BARRIEN ESKE: Egunerokoetan agertu dira artikulu batzuk euskal dantza barriak geituteko seriketa baten barria zabalduaz. Orain

AZKOITIKO IDI PROBETAN ZARITUAK

| | Untzeak | Metroak |
|---|---------|---------|
| 1.—Benigno Azpitarte "Antzua", Berrizkoa | 49 | 1,50 |
| 2.—Alejandro Basarrate, Erandiokoa ... | 46 | 3,05 |
| 3.—Braulio Bilbao, Lujuakoa ... | 46 | 1,35 |
| 4.—Jose Urbieta "Arantzeta", Azpeitikoa, | 46 | 0,00 |
| 5.—Antonio Esturo "Ykeriya", Mendatakoa | 46 | 0,00 |
| 6.—Antonio Iturbe "Sorarrain-zar", Asteasukoa ... | 44 | 2,95 |
| 7.—Luciano Lazamiz, Busturikoa ... | 44 | 2,15 |
| 8.—Jose Guisasola, Markinakoa ... | 43 | 2,00 |
| 9.—Javier Idiakez "Santuaran", Izlarkoa | 43 | 0,00 |
| 10.—Braulio Bilbao, Lujuakoa ... | 41 | 0,10 |
| 11.—Gregorio Irastorza "Egi-eder", Rente- riakoa ... | 40 | 2,95 |
| 12.—Nikolas Pedernales, Bermeokoa ... | 40 | 0,20 |
| 13.—Soraluze "Korta", Lasartekoa ... | 40 | 0,00 |
| 14.—Benjamín Alegría, Bermeokoa ... | 40 | 0,00 |
| 15.—Juan Urresti, Arronakoa ... | 39 | 3,90 |
| 16.—Domingo Erkizia, Ibaeta (Sn. Sn.)-koa | 39 | 0,90 |
| 17.—Braulio Bilbao, Lujuakoa ... | 39 | 0,30 |
| 18.—Marzelino Zarraga, Lujuakoa ... | 39 | 0,00 |
| 19.—Antonio Sarrabe, Markinakoa ... | 38 | 2,70 |
| 20.—Mikel Lasa "Otzaka"; Iraetakoa ... | 36 | 3,90 |
| 21.—Jose Gandiaga, Markinakoa ... | 36 | 2,10 |
| 22.—Rafael Zarandona, Mungiakoa ... | 35 | 0,15 |
| 23.—Gregorio Bascaran, Markinakoa ... | 35 | 0,00 |
| 24.—Juan Aguirreamoiloa, Markinakoa ... | 33 | 0,00 |
| 25.—Antonio Barrutia, Azpeitikoa ... | 33 | 0,00 |
| 26.—J. M. Juaristi "Usula", Azkoitikoa ... | 30 | 3,40 |
| 27.—Braulio Bilbao, Lujuakoa ... | 30 | 2,40 |
| 28.—Jose Elustondo, Zarauzkua ... | 28 | 1,15 |
| 29.—Juan Maguregi "Laitu", Markinakoa. | 21 | 3,50 |
| 30.—Toribio Guarrotxena, Rigoitikoa ... | 18 | 2,60 |
| 31.—Luis Olano, Bermeokoa ... | 16 | 2,00 |

arte —irakurri dogu— antxiñeko rentatik bizi izan gara. Erriak eta gaztediak edozein lekutan —bai mendian edo bai kalean— dantzatu ta abestu daikezan kanta ta dantza bearean gagoz. Baiña dantza ta kantu oneik euskal-erriko usaiña eroan bear dabe. Orixe bera da kantu ta dantza oneik euki bear daben gauzarik bearezkoena.

Asmo au lenengoz Bilbo-ko "Radio Popular-etik" sortu zan. Geroz, Bizkai-ko "Caja de Ahorros"-ek, "Junta de Cultura"-koek eta "Asociación de Txistularis Vascos"-

koek parte artu dabe euren laguntza eskeinduaz. Sortuko leitekezan dantza onek irridantza edo barre egiteko dantzak izango ziralda esaten zan lenengoz. Baiña geroz klase guztietako dantzak presentatu daikezala jakin dogu. Izan be euskal-folklorean olan erre-zago geitutako da.

Dantza barri onek ez daki-guz zelakoak izango diran; sariak beinpein interesgarriak dirala esan daikegu, guztiz iruzogei milla peseta bananduko ba dira, medalla, diploma eta onetariko beste gauza batzuk ezezik.

Idi-proben Kanpeonatoan "Antzua" nagusi

- *Bigarren, Alejandro Braulio, 46 untzegaz.*
- *Irugarren, Braulio Bilbao, untze bardiñekaz.*

ANTZUA NAGUSI

Azkoitin, San Andreselan España-ko 13-garren kanpeonatoak izan dira. Lau egunetan zertu ebezan indarketak: zemendiarren 27, 28, 29, 30-ean.

Eta bai, gizona jsekulakoak izan be!

MUXIKE KANTARI

Muxike: txoko kaxkarra, bai, baiña bertsoan ez makala. Eta ori, barriz, len eta orain. Lengoan, or daukogu Kepa Enbeita, gure "Urretxindorra". Noren gogoan ez dago gero, gure Kepa andia? Ziur nago, denpora artako aren entzule guztiak, biotz barrenean pil-pillean dardoa orain be, bai aren gizon-tankera zintzoa, bai aren bertso egokiak, bete ta alaitsuak.

Eta orain? Ain ugari perritxi-koak be ez dira. Sikeran, au ikustean biotza poz-saltoka jarriten da. Eta ikustea nai, barriz, orixe bera, beste erri askotan. Bai, perretxi-koak baiño ugariago.

Arritzekoa da benetan Muxikak daroan errestasun au bertsoak egiteko. Eta bai arritzekoa be gure erriaren doai au, ontasun berez au. Eta benetan estimagarria. Gure erriaren berezitasunen artean, auxe da, noski, jatorreniako bat.

Geienetan gizon oneek kontuxu, ez jakin edo eskolabakoak dora. Alan Muxikako geienak be. Eta danok galdeturik gagoz, zelan asmatu daikeen, bat-batean eta aurretik pentsatzeko asti barik ain bertso ugariak eta ain bertso egokiak... Doai au benetan arritzekoa da izan be!

Goazen orain Muxikeko bertsolarien izenak emoten. Emen bakar-bakarrik konkursuetan presentatuturikoak jarriko dotaz. Ara:

Lopategi, Bizkaiko txapeldun. Balentin Enbeita, Abel eta Jontxu semiak. Gero Iturri anai biak, sei. Sardui, zazpi. Ajuria, zortzi. Ta Iburguengoitia, bederatzia.

Tire! moltzo politte, e?

Urrengoan edo bakoitxaren bari.

31 pareja onenatarikoak batu ziran. 20 Bizkaitik; 11 Gipuzkoatik.

Proba-lekua benetan galanta. Laguna eurrez joan da bertara, eta lau egunetan. Zer geiago gura...?

Azkoitiko idi-probak zarata andia zortu izan dabela, ze esanik bez. Ortik 31 bikote orrek. Baiña nor manla-jabe egingo ete zan? Benetan gozoa izan be, kanpeoi-mantapean lo zabal egitea; ba, bai manla-jabe, bai 16 izera, txapel bat ta kopa bi-jabe, "Antzua" jaso zan.

Goazen aztiro.

IKERIYA GARTSU

Probak, esan dogunez, lau ekiñalditan izan ziran. Lenengo egunean, zapaluz, Ikeriyak jokatu zuan beren basia. Eta ez txarto gero; besteak urduri la artega jaritzeko moduan ekin be.

Marka onegaz amaitu eban beren jarduna: 46 untze. Irabazteko txiki, orraitino; baiña domekaraino eztilan egoteko lain.

GARAITS MEREZIA

Domekan 11 idi-bikotek neurtu eben euren indarra.

Ikeriya nagusi geldituko ete zan domekan be? Edota, B. Bilbaok, edo Antzuak "Ikeriyari baietz ondu"? Alan izan be, eta biak. Baiña ezatekoa da zerau: B. Bilbao-ren idi-ludankoak eta bai beste bikoteak be, ez zirala eldu ekarren famara. Eta esatekoa da au bestea be: gixintzat egoala Antzuan idietan Azkoitiko irabazlaria. Gentia orretan egoan.

Baiña esanak esan, Antzua 49 untzeraño eldu zan. Eta izan be, esan agertu besterik marka ori czeztu leikeanik. Agirian geratu da, Antzuaren idiak sekulakoak dirala. Ostera, B. Bilbaok 46 untze ta 1'35 m. bakarrik egin zituan.

ZARANDONAK POTX

Astelenean bost bikote euren arri-eroateak egin zituezan. Espillak 33 untze. Za-

randonanak 35 untze egin-egiñik bete ebezan, ikustera emonaz lengo idi kanpeoien akabue. Gero jo ta ke ekin eutsan Markiñako Asabelek, polit batean bukatuaz: 43 untze. Gabean, "Arantzetak" bakarrik marka ori ondu zun 46-ean jarriaz. Asteleneko azkena, Markiñako "Illaspe". Ez eban zer andirik egin: 35 untze. LAGUNA EURREZ

San Andres egunean, proben laugarren eta azken eguna ain zuzen, beste amaika idi-parek euren ekiñaldiak egin ebezan.

Laguna parra-parra egoan emendik eta andik. Egun ontan be, euria bolalean jarraitu zuan. Goizean ekin eulsen Pedernales-enak, Bermio-koa, 40 untze egiñik. Arratsaldean Iturraranez 36 untze. Ostean, lengo kanpeoien aldia eldu zan: Basarrate, Erandiokoa. Onak ederto batean ekin eutsan, marka oso ederra ipiñiaz: 46 eta 3'05 mts. Eta alan Españiko subkanp onatuagaz altza zan. Eta pena, proba-lekua euriakaz aro txarrean ziarduala, beste... .

Gaberantzian, euria botalean aurrera zaila, proba-lekua txartuaz, Benjamin Alegria, Bermiokoa, agertu zan bere idi txikiakaz. Txikiak izetez, baiña antza baba zarra parra-parra janda-edo. Izan be, 40 untze ederrak egin ebezan. Ostean, Marzel Zarragak, Leoiko apaindutzaille andiak, 39 untze. Eta azkenez, Elustondo 28-gaz.

Alan ba, "Antzua" nagusi. Beren 49 untzeakaz Españiko kanpeoi egin da. Bere bizitzako lenengo kanpeonatoa.

Doian urtean proba onak eskuratu dauz: Abadianokoak, Zaldibarkoak, Gatikakoak, Getxokoak, Mallabikoak eta Elorrikoak; azken urte bi onetan 200.000 ptas. irabaziaz gixi gora bera.

Ezin ukatu "Antzua"-ren idiak aparte-koak dirala, ta gero ta jatorrago agertzen dirala. Olan beite beti.

Kanpeoi txapela Bizkaira ostera be. Eta nun Giputzak?

Etxerre

Apaiz - biargi

MUNDUA MUNDU

Ille oneitako gertaerarik nagusitxoena Errodesi-n —erderazko Rodesia-n— gertatu dira. Ezta gaurkoa onen entzutea. Aurrean daukot orain urte bi eguneroak zabaldu eben fotografi bat: mutil baltz galanta erdi makurtuta, aieneka, polizi-txakur batek atzekaldeko bigunean ainke egiten deusolako. Fotografi barranean alan diño: Salisbury-n, Norsteamerikako Birmingham-en lez, gizon zuriak polizi-txakurren laguntzaz eutsi nai deutso baltzen gaiñ daukon aginteari. Salisbury, jakiña, Errodesi-ko (garai batean Errodesi Azpiko) kapitala dogu, uribururu.

Errodesi izena ekarri deusku ba oraingo ontan be. Afrika-ko aize beroak. Lurrealde ori Afrika bekaldean daukozu: Espaiña-ren lautatik iru bai luze-zabalean bere ia lareun kilometro kuadrakoz; bizileku zabaltzoxa or bizi diranentzat: ia irureun milla gizon zuri ta lau bat milloi baltz. Nolabaiteko bakean ziarduen baren biarretan, zuriak nagusi ta baltzak esaneko, Ingalterra etxejaun ebela.

Aspalditxotik etorren baietza ta ezetza. Ian Smith-ek, Errodesi-ko gobernu-buruak, baietz, emon ezean artu egingo ebala askatasuna Errodesi-k, eta zuriak len lez agintari iraungo ebela. Ingalterra-k barriz, “begira gero olakorik egin”, aginpideak zuri ta baltzen, danen gogora bear ebala izan-da.

IBilli dira Wilson iglesa ta Ian Smith batean emen, bestean an, auzi nonola konpondu naijan. Nai bai! Azkenean, aspertuta, Errodesi-ko Smith-ek “gu garala emen erabateko jaun-da jabe” esan dau ta kitto. Askatasuna txampan-da guzti ospatu dabelako otsa be izan da ta! Etorkizunak dakarrena txanpan edatea balitz bai majo! Bilkur naz ordea ala izango ez ete dan. Ara zergaitik.

Zuriak, mordoska besterik ez tira ta alan be ganadurik geiena berea dabe, berez lur-langintzarik aberatsena (amalau milloi ektarea daukez); industri barri dana, zuriena; gizon zuriak bakarrik egin daitezke bere gogora Unibersidadeko ikasketak, ta gertatzez ia beti aginte-makilla bere eskuetan dauko. Baltzak barriz, lau milloi izanarren, lurretan ogei milloi ektarea dabez bereak eta esanera bizi dira, gobernuan zerikusit aundi barik, beartsu ta ez-jakin ein diralako.

Ikusten danez, betiko kontua. Zibilizatze-lana norbere praktikera betetzea da lenengo, ta urrengo, lagun-urkoari on egitea. Baltzak ez tirala oraindik beren burua gobernatzeko gauza? Zertan ibilli dira ba orain arte orrreen maixutza artu dabenak? Unibersidadeko ateak ia erabat itxi ta politika-arazoetan ia tutik erakusten ezpajake, gero be jarraituko dabe gaurrarteko ez-jakintasan eta gauza-ezean.

Egia da, eginduten egoteko gai eztanak lenengo gai izatera iritxi bear dau, ta iñoiz nagusitzara allegatzen bada, orduan erakutsi bear dau gaitasun ori, beste edozeinen eskubideak —egizkoak baldin badira beintzat— zapaldu ez baiña gordeaz, alik eta ondoen begiratuaz. Orregatik, arinka ibiltzeak kalte egiten deutso naziño barriak norbere eskuko biurtzeari: aor Kongo oraintsu. Gogoan euki bear da ordea, onen errua mutikoak —esate bat da— beti beren mutikotasunean euki gura izatetik datorrela. Ori eztago ondo: mutikoak gizon bear dau egin, eta naziño batek bere eskuko, zuri gutxi batzuen eta lau milloi baltzen onerako, danen probetxurako. Ala gertatuko al da Errodesi-n be.

A. ZURUTUZA.

Pasa dan illeko eguneroko, asteroko eta beste errebista klase askok gai one-taz beterik ikusi doguz. Erradioak be egin dau ondo majo berba barri onetaz.

Lenago be ba-ziran.

Orain dala zazpi urte Erromako mando nagusiak alto bat emon eutsen apaiz-biargiñ oneri. Zergatik? Apaiz baten biarra obreru-biarra ez zala ta? Txarto informatuak euezelako? Diskutidu leiken gauza bat da au. Dana dala, kritikatuak izan ziran parte onetatik. Komunistak iñoen: “Elizaren espiak dira oneik”. Baiña ez ziran bakarrik komunistak apaiz-obreruen kontra euezenak. Eleizaz barrutik be ba-zan alkar ezin-ikusia. Erromako konserbadoreak laster makillatu ebezan apaiz-biargiñ oneik euren kritika gogortxuekin. Azpijan aundia egin eben eta azkenian lortu eben fabriketatik ataratea.

Asarretuta?

Eun bat apaiz ziran alto egiñirikoak. Apaiz-biargiñ oneik Erromako deiari obedituko ete utsen?

Egun itunak areek, batez be, barruz ziren apaiz eliz-gizonentzat. Geienak ja-so eben abotsa ezebela ontzat ikusten esanaz eta “ESKUBIDE EBELA BIARGIÑAK DAROAN BURRUKA ZUZEN ORTAN BAT EGITEKO”. Geienak entzungor egin eben Erromako aginduei eta euren gotzaiekin urratu ebezen artu-emonak. Egia esateko apaiz-biargiñak be ez ziran ain ondo portatu. Batzuk komunisten atzetik joiazan. Ideiak ez ebillezen ain garbi, batez be apaiz-biargiñ ez formatuetan. Ronkalli bera be bildurtu egin zan eta bildur ori Erromara bialdu eban. Au dala-ta, ba, ezin geinke “alto” egitearen kulpea goikoeri bakarrik bota.

ñak barriro

Pararraioak baserrian

Oraindik asko ez dala, ez dakit nun, artikulu pikantetxu bat irakurri neban. Ta pentsatzen ta pentsatzen, artikulu aretzen gain beste artikulo-txu bat zuentzat idaztia pentsatu neban.

Artikulu arek auxe iñoan: Euskal-errian ez egoala baserririk onezt-orratzik (pararrayos) eukanik; edo beintzat, berak ez ebala iñun ikusi. Eta nik be auxe diñotsuet: ainbeste baserri ikusi arren ez dot sekulan oñezt-orratzik baserri etxe gainean ikusi. Zuk bai, irakurle? Ikisu badozuz be, esku bateko antzamarrakin kontatuko neukezala uzte dot. Ez al da egia?

Auxe dala ta burutaziño batzuk egingo dodaz: Oñeztarriak zenbat eta zenbat kalte egin ete dau gure baserrietan! Oñeztarriaren bidez zenbat eta zenbat baserri erre ete dira Euskal-errian!

Oraintxe dala sei bat urte oñezt-erri bat jausi jakun geure kortan eta pozik geu bertan tragau ez genituan, baiña kortako txal ederrenak bertan siketu ebazan.

Ba, irakurle, atzeratasun bat deritxat gure baserriak oñezt-orratzik ez aukitea.

Oñezt-orratz bat ez da asko kostaten. Ta gainera bein baten ipiñi ezker ez dauko beste kasturik. Orratz miragarri onek ez dau sekulan txakurtxiki bat gastatzen.

Gure baserrietan milla bider ikusiak gagoz orratz au baño gausa garestiakoak. Baserri guztietan ikusiko dogu txakur ederra; ta sarritan baten ordez bi edo iru. Ta ez uzte gero txakor bat debalde erosten danik! Jakiña da zelan txakur batek, gizon baten aña jaten dabela. Ta kontuak etara baten ordez hi edo iru edo gaitara badira.

Nik uste oñezt-orratza txakur bat baño onuragarriagoa dala baserri bantzetat ta au asko be gitxiago kostata.

Zenbat motor ete dagoz gure baserrietan? Danok dakigu asko dirala. Baiña konturatuten zara motor bat zenbat kostaten dan? Motorra bearezkoa da baserri askorentzat eta poztuten naz eurek ikisita, baiña esan gura dotena da, oñezt-orratza be bearezkoa dala ta ain merke izanik, lastimea da gure baserria bere magal pean ez egotea.

Ta azkenik, gure baserria oñezt-orratz baten aspian badago, baserri-erriak, bere etxean, ez dau oñeztarriaren bildurrik izango. Trankil eta patxada osoan jarriko da sutondoan, ekaitza kanpoan orruaka ta trumoi-otska dabillen bitartean.

Gaur, barriro.

Emen be Konzilioko aizeak ondo ikusten doguz. Uste dogu gauza ondo pentsatua izan dala au. Eta azkenean ara, emen esperientzi barriaren aspekto sus-traituak:

1) Apaiz mordotxo batek libre dauke eguneroko jornada guztian fabrika aundietan biarra egitea.

2) Eguneroko biarra, jarnala irabaziaz, iru urte barrurako da bakarrik. Esperientzi moduan emoten da baimen au.

3) Apaiz-biargiñak Ebanjelioa zabaldu bear dabe lenengoz fabrika-bierra egin da. Au da apaiz-biargiñen lenengo biarra eta misioa.

dabela Eleizak pastora! kontuan. Eleizaren bildurrak uxatuten ari dira.

Baiña permiso au emotean gauza kurixoso bat ikusten dogu: erresponsabilidate barri au artu dabenak Frantziko obispoak izan ei dira, ez Erromako Kuria. Erromak permititu egin dau, eta konforme egon da materi onetan, baiña zirikatatu dabenak Frantziko obispoak izan dira. Eta onek esan nai dau Obispuen kolejialidadea —Konzilioan aprobaturakoa— egitez bizi dala, errealdade bat dala. Erromako Kuria modo barrietan obraten asi da. Au dala-ta asko poztuten gara.

Ondoreak:

Orain Eleizak esperientzi on bat



4) Augaitik apaiz-biargiñ onen auke-erazea esijentzi aundiak izango dabez: formaziño ona, biarran oituak eta Eleiza asko estimatzaileak. Komunitadetan biziko dira. Acción Católica-rekin ondo lotuta egongo dira.

5) Apaiz-biargiña alkartu edo sindikatu leike, baiña ez da izango akziño sindikal baten buru edo erresponsable. Erresponsabilidate ori militantientzako da.

Berbiztuera

Esperimentaziño bat lez ipiñi bada be, uste dogu aurrerapen aundi bat emon

izango dau. Ona eta argia. Eleiza geroago eta geiago pobrentzat izango da. Esperientzi onekin Eleiza aberaztu egingo da pastoral eta obreru kontuan. Eta erabaki igerriagoa emongo deutse problema onei.

Uste dogu baimen au, apaiz-biargiñen baimen au, Konzilioaren frutu eder bat dala. Eta oraindiño onelako frutu asko gagoz itxaroten.

Karmel

Barrenetxea.

Urte bat joan eta bestea etorri

Urtero, zori txar eta onak, bako-txak bere partetik, ainbat barri ekarten deuskuez.

Joan jakun urte onetan be, munduan egunero atara al izan dira aldizkariak erruz, ta bete-beteak. Beti euki dabe zeozer esateko antza.

Besterik ez bada be Vietnam-go gertakizunok beintzat ez dira, emoten dauanez, iñoiz be agortu bear. Bertan zer gertatuten dan iñok be aituko ez dauan arren, —nik neuk beintzat ezin dot— idatzi dira idatzi, toneladaka papelak munduan bera dala-ta.

Santo Domingo-ko ixtilluak, Grezia-ko gora-berak, Errusi ta Txinan arte-ko akiakulak, Rhodesia... Zenbat gauza urte bakar baten ta bakotxean.

Aztu ez dakigun emon daiogun begirapen bat amaituteko daukagun urte oneri. Zer ekarri deusku?

EGUN GOMUTAGARRI BATZUK.

Uztarrillak 24: Estadu-gizonik onenarikotzat eukia izan dan "Churchil" ilten da.

Zezeillak 20: "Ranger 8" sateliteari eskerrak, itargiari beste arpegia be ikusi deusagu. 7.000 erretratu atara jakoz.

Epaillean: Illaren 3-an. Españi guztiko unibersitariuak oporketan. *Emertzigarrenean,* Ruso bi satelite barruan lurrari jira-biraka. *25-ean* beste "Ranger" bat illargiratuten da. *29-an* Chile-ko lur-ikara bildurgarri baten 400-bat ilten dira.

Bagillak 2: "Geminis IV", beste gizon bigaz munduaren biran.

Garagarrillak 17: "Mariner IV"-garrenaren bidez Marte-ren lenengo erretratu atara al izan da.

Egun onetan bertan, Greziako gobernuaren ixtillu luzeak asten dira.

Iraillak 14: Konzilioak azkenengo

AGRARIA-KOERI DEI BAT

Erri-bidea ala tren-bidea?

Nik betsean entzungo zenduezan bera oneek. Gaur eguneko programa ta errebista guztiak bere eko eginda dabiltz. Bai, antza badago jentea lagundu guraz edo...!

Gure artean baserriak auki dabe lagundu bearra. Ikustea baiño eztago zelan dagozan baserri asko. Bizitze-ko etxeak baiño askotan beste zeozer baten antza eukiten dabe seguru. Gaur be oraindik ainbet egin leiteke, gizonari jakozan kondiziñietan jaritzeko.

Zorionez baserriak —astiro eukita be— geroago ta laguntza geiago dauko. Egin diran alegin txalogarriak agirian dagon egon or-emen. Baiña batzuetan utsunek be egoten dira; ta gaur onetariko bat adierazten nator-tse. Ara.

Muxika'n bada auzone bat (ta ez ipuin moduan, egiz baiño) aspaldi bere bide zabalerako bidea zabaldu naian. Aratu ditu baster guztiak laguntza eske eta esku utsean agerta da azkenengo orduan.

Bide au "erri-bide" edo "anda-bide" da. Iñok ez daki zenbat urte dittuan. Metro bi ta erdi bat zabalera eukan eta auzonetik bera zortzi-reunen bat metro. Beti basatzen ibilli bearra zegon euri apur bat egin ezkerro eta batez be neguan ezin eikean pausu bat seguru emon.

Derrigorra zala eta baserritarrak iñok lagundu gurarik eztuala jakiñik, eurak euretara egitea erabaki eben. Eta bai lan egin be! Iru egunean zabaldu eben lau metroraiño eskabadora bategaz. Danak pozik egozan aurtengo neguan taxis'ak etxera etorteko moduan egongo zala bidea ta. Baiña gauzak txarto urten dabe. Arria

botateko egozala ara nun datorren tren-bideko kapataz edo nik ez dakit zer. Agur itxaropenak! Bidea itxi egin bear zala metro ta erdian.

Len baiño basatza aundiagoa eta bolzikua zulotuta gelditu dira baserritarrak. Zaarrak diñoenez "erri-bidea" amalau oiñ ei da eta amalau oiñ lau metro dira ta ez metro ta erdi. Ta "erri-bidea" tren baiño ariñagokoa da. Lenago gizon bat egoan paso aretan tren orduak zaintze-ko, baiña gerorantz kendu eben. Ordu-lik ona burdi batzuk arrapatu dittu trenak. baiña ez automobilik. Badakigu arriskuan dagoana, baiña ez automobilentzat bakarrik.

Arriskua dago, bai, badakigu. Baiña ezin leiteke arrisku barik ipiñi? Ezin legike gizon bat jarri lengo antzean? Edo ezin leiteke estaziñotik semaforo bat ipiñi, edo tablero bat tren ordu-kin?

Nik eztaikit ze soluziña izango dan onena. Bakar-bakarrik itaunduen dot "erri-bide" au ez obetutea baiño beste soluziño obeagorik billatu ezin leiteken.

Bai tren-bideak ta bai baserriak be, bakoitzak bere deretxo ta bete-bearrak daukoz. Au ikusiaz, nik itaunduten dot: derrigorrezkoa ete da "erri-bide" au orain arte lez itxitea, tren-bideko deretxo ta bete-bearrak gordeteko? Ezin leiteke beste soluziñorik billatu?

Bear bada arlo au borondate apur bategaz arabagi daiteke. Ni borondate on ori billatuten noa.

Irrintzi.

saioari ekiten deutso. Eztakigu ondi-ñokarren noiz arte iraungo dauan.

Urrillak 4: Paulo VI-garrena ONU-ra bidean.

Abenduak 8: "Vatikano II" amaitu egiten da.

ASTERA GOAZEN URTEAN.

Bestietan lez urte onetan bere, ordu atsegingarri ta atsekabetsuak igaro bearko doguz.

Egun alaiak izango jakuz —Jaungoikoak gura badau— esatebaterako, norbere urte eguna; erriko jaiak; aide-

koren baten eskontza edo jaiotze egunak, ta beste amaikatxo.

Beste batzuetan agiñetako miña dala, edo tripetakoa; arazoren batek estututen gaitula... Batek daki zer, baiña atsekabetan ibilliko gara.

Atsekabe guzti oek poztasun bjurto al izango bagenduz!

Ta badakigu —esate baterako ama batek— bearrrik gogorrean izan da be, semienganako maitasunak eraginda-edo diardunean, ez dabiela samintasunik artuten? Eta zuk ezin izango ete dozu ba zeure nekietan iñor maitatu



Peru ta Mariye

EUSKAL IPUINAK DISKOETAN

Columbia-etxean atara dabez oraintzu, disko bitan, zazpi ipuin euskeraz.

Izan be, Ibarrola-tar Teri-ren ipuiñ oneik, euskal-folkloreko kanteratik eta erriaren mitoetatik ataratakoak dira.

Ibarrola-tar Teri, Murelaga-Aulestia-ko alaba dozu. Bere berba-tankera zorrotza, erreza eta elegantea da. Deklamazioa be goxo-goxoa eta erriak dauan pipermiñez betea da.

Disko oneitan gizonen abosa alkar-berbetak egiteko—beste artista-laguntzailleak be agiri dira. Ara: Luis Villante, José Manuel Uriaguereca eta Carmelo Aulestiarte.

Bizkaiko euskeran dagoz. Euskera errez eta garbian. Berba bat be ez da gaitzen.

Disko interesgarriak benetan oneixek!

Peru ta kriaua jun ziran egun baten basora egurretan. Te Peru an cbillen buruz bera. Igerten yakon buruan zeozer ebillena. Ta esan eutsan kriauak ze:

—Peru, ze, gaur motel edo... , zer jasoten yatzu ba?

—Bai ba, buruan sartuta daukat niri emazteak ezteustala asko gura. Ta gura neuke jakin orixe, zigur, gura deustan edo ez eustan gure Mariyek.

—Bai e? Ba ori jakin giñeike ba. —Baiña zelan baiña, zigurtadiaz zelan? Nik gura neuke jakin ba.

—Ba egizu neuk esaten deustadana, ta jakingo dozu. Zeuk entzungo dozu berak zer esaten daben. Ba egingo doguna da, zu amen egur-txortien barruan sartu, da tapau-tapau eginda egongo zarienez egurrekin, ba iñok eztau jakingo an zoiazanik, ta neuk eruangoz zailut lepuen etxera, ta an itxi-ko dot beien, ta esango deustat Mariyeri: Mariye, eztakizu asko zer pasau dan! —Zer ba, zer pasau da ba? —Peru il da.

—Bueno, ondo da, ondo da, egin ordun orixe.

Esan da iza. Eruan eban kriauak egur-txortien barruan, ta eldu zanian etxera itxi cban beian, ta esan eutsan Mariyeri ze:

—Ai Mariye, Mariye, eztakizu gaur ze jazo dan!

—Zer jazo da ba?

—Ba Peru il da!

—Peru il? Baiña zelan ba? Baiña sano jun dan gizona, baiña zer euki dau edo zelan izan da ba ori? Da eztau berbarik aurretik egin edo eztau ezebe esan?

—Bai, esan deust ba gauza bat.

—Ta zer esan deustu ba?

—Ba biok alkarregaz eskontzeko.

—Ene! Gure Peruk ori esan?

—Bai, bai. Orixen esan deust.

—Ta zer diñozu ba, kriaua?

—Ba, zeuk gura badozu, Mariye, ni prest nago.

—Ene! ba orduen egin egin biarko dogu ba. Ainbat ariñen ordun. Ainbat ariñen ipiñiko ditugu geure ezteguok.

Ta Peruk ori entzun ebanian, egur-txortien barrutik:

—Ai Mariye, Mariye, ori izan da zuk gura izan deustazun guztie?

Ta Mariyek erantzun eustan:

—Nik, Peru, asko be asko gura deustut, asko be asko. Ba pentsau egizu ba zenbat gurako deustudan: gura ezteuzadan kriauaz be ezkontzeko be prest egon naz zeurre esana egitearren.

Ibarrola-tar Teri
(Magnetofon artua)

Gabon abestiak

Dan, dan, dan, txiro ez kale bi
Otséz dardaraz da gosez.
;Arren atia edegizue
Erruki zaitze gugaz.
Baiña barrutik gogor dirautse
;ez daukagu lekurik, ez!
Negu gorrian Gabon gaubean
Kalean itxiten dabez.

Gabon gaubean amabietan
Lastozko askatxo baten,
JAUNEN mirariz, Mariagandik
JESUS Aurra da jaiotzen.
Aintza Goietan Bakia emen
Aingeruak abestuten,
salbagillea jaio dala ta
Artzaiai dautse deituten.

Dan, dan, dan, Jose eta Maria
Oztatu billa Belen'en
Dan, dan, dan, gaubeko amaiketan
Dan, dan, dan, atia jotzen.
Eta barrutik, dan, dan, ;asarras!
Gogor dautse erantzuten.
;Dan, dan, dan, gaubeko amaiketan!
Dan, dan, ;zer dakazue emen.

Edurra eta aizea otza
Kalean oztatu gabe,
Alango baten estalpe zaar bat
Nekez aurkituten dabe.
Belen'go urian egonagaitik
Asko ondasunen jabe,
Astotxu zaar bat eta idia
Beste laguntzik ez dabe.

Pozez beterik jo daigun danok
Dan, dan, dan, Belen'go atia,
Jesusen nai dau borondate onez
Beragana juatia.
Batak besteai Maitasunezko
Biotzak erakustia.
Gura badogu orain da gero
ZORIONEKO IZATIA.

Enbeita'tar Balentin.



Andrak arrazoia dauke

- *Andran biarra ezin daiteke gitxiago oraindu.*
- *Kaleko andrak egunero zortzi ordu egiten dabez biarrean.*
- *Baserrikoa, barriz, bederatzi.*



Gizonezkoak sarri andrazkoak ezer eztabela egiten edo, beintzat, biarraren izena emoteko moduko gauz gogorrik eztabela egiten pentsetan dabe. Au azaletik gauzak ikusterrren da. Beti lez, izan-go dira ezer egiten eztabenak be; gizonezkoak be ba-dira izan-ta; baiña onek ezer be eztau esan gura.

Esate baterako, ikusi daigun edozein etxeko ama baten eguna. Eztauca geldi egoteko momentu txiki bat be. Goizean asi, ta gabaz berandurarte, bear bada, au ta bestea egiten jardungo dautso. Ez ete da gero ori bier egitea, ta bier geiegi egitea!

Klase bitako kargak gaitit izaten da andrazkoaren bier geiegi egin bearra. Klase bi, baiña biak alkar osatzen dabena: etxe barruan egin bear diran zeregiñak eta, profesioen bat daukenak, profesio orretan bete bear dituenak.

Zergaitik bier geiegi daukoen, geroago ta obeto dakigu. Esate baterako, kaleko emazte batek, semerik ezpedauka, astero 53 orduko bierra egin bear dau (au da, egunean 7 ordu). Baserrian barriz, 64 ordu (9 ordu egunero). Ta iru seme daukazan ama batek kalean 75 ordu as-

tero (egunero 10,7); baserrian barriz, 82 ordu astero (eguneko 12). Ta askotan bier gogorrak, geroago ta errestasyun geiago euki arren. Batez be, iñoiz amaituten ez tiran zer egin txiki orreek, ta amaitu-ta gero ezer ez tala egin ta penaz ixten dabezanak.

Onenbeste ordu sartu bear raren arrazoiak asko dira: bada bat etxeko bierrak egiteko ekipoak ez tiralako naiko onak; antzeran ikusgarriak izan arren, manejoan gatxak eta, sarri, gizonezkoentzat egin-da ba-legoz lez diseñatu-ta dagozanak. Ganera, ekipo orreek gitxi zabaldu dira ondiño, batez be erri klase batzuen artean.

Beste arrazoi bat: gaur bizi-tzak eztagoz egon be sobran. Ta, zoritxarrez, txiki-giak izaten dira, insonorizazio exkardunek, kargiak izaten dira, ta, batez be barriak diranean, etxeko andrearentzat eguneroko buru-austea izaten dira. Ta, oindiño, etxekoandra baten bierra ezer ezpaltza lez ikusten jarraitzen dogu gaurko mundu ontan. Ama bada, ganera, bakarrik sentiduko dau bere burua, bere gaien artu bearko bai dan semeen edukaziñoaren erresponsabilidadea beste zeregiñen ganetik.

Ta profesioen baten sartu-ta dabizen andrazkoak? Egia da kanpoan bier egiten dakienak bentaja asko daukezena: ondo irabazten badau, etxe bierrak egiteko laguntza bat topetako moduan aurkitzen da; etxe bierrak ordena aundiagoan eroateko kapazidade geiago izaten dau ta, batez be, eguneroko txoke edo kontrariedadegaitik ardua larregirik ez artzen jakiten dau, bere profesioan ikasitako disziplinari esker-rak. Ganera, bere profesio bier orrek soziedade eta ekonomia-aren aurrean merezi dabena konsideraziñoari ezker-rak, eztau sufriduko ezer bere bizi-tzan egingo ezpaleu lez.

Baiña, beste parte batetik ikusi ezkerro, badira bere bizi-tzan konplikaziño ta marapillo ederrak be. Orduak, esa-

te baterako: dendanak, fabrikenak, eskola orduan eta abar, bata bestearen konturik euki barik ipiñi-ta dagozala ezan leiteke. Bierrera joateko denpora asko galdu bear izaten da, urrun dagoalako fabrika edo bierlekua-ta. Ta, batez be, arrazoi ez tiran ez takit zer batzuegaitik, euren profesioan gitxik eukiten dabe kalifikaziñoa, orregaitik, bier txarrak eta irabazi pitxi-koak izaten dabiez sarri.

Soluziñoa topau bear jake problema oneri. Etxe bierrak gitxiagotu ta profesio bierra erre-estu egin bear jakez. Ontarako bideak topetan asi-ta gagoz; jarraitu egin bear ondiño gaurko soziedade ontako problemak al diran beste beintzat onbideratu arte.

Jesus Mari.

(LENENGO ORRITIK) GUK ZER DERITXOGUN?

Buru auste onek aspaldikoa dala emoten dau: 1938 ezkerro gure artean ei dabil ibilli. Beste nazioetan lez goiz jaioa. Baiña erbestean lege onek zabalik dago; azpaldi ontan. Gauza bien artean bada alde: gu zai egon gara; arrek egin eben.

Alan be, bien ondoreari begiratuta, gureak be bere alde ona izan daike. Lege onek alan dagozala, erbestean abusoak izan dira ugari. Lege zu erabiltzeko artean prestatu barik ete egozan? Guk, barriz, legea erabili baiño lenago prepartuta egoteko aukerea izan dogu. Ondoreak ikusita gero esan aal izango dogu zein dan bidezkoena: ekiñez ikasi, ala ikasitakoan ekin.

Dana dala, bildur apur bat badala emoten dau. Osterantzean ez ziran izango orrelako baldintzak jarriko legean. Oraindik prepartu barik ete gagoz...? Geroari itxi deiogun erantzuna. Gu, bada ezpadan be, zai jarri gaitez, jentek nundik nora jotzen dauna ikusteko zai, gero bear dan lez jokatuko be beti zai.

Dna gure asmo onek, gure jatortasunak, bide orretik eroan daike. Gure gizartearen jabe alkarrenganako maitasuna dala adierazi daigun. Gure gizartearen normak lagunurkoa izan bear dau. "Maite eta egin gura dozuna", iñoan Agustin Deunak bere urtekera jator batean. Maitasuna oinarritzat badaukagu, ez dogu lagunurkoagandikako bildurrik euki bear.